Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu 5/ 2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unera arte.

Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora, de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 y hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la entidad beneficiaria.

Dirulaguntza itzultzeko, bidaliko zaien ordainketa-gutuna erabili beharko da, Bizkaiko

La devolución de la subvención se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago, que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera egindakoa.

les será remitida según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Hamargarrena.- Erakunde onuradunaren beste betebehar batzuk.

Décima.- Otras obligaciones de la entidad beneficiaria.

Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza honen xede diren jarduera guztietan herritarrek EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da, eta, herritarren artean zabalkunde zabala eragiten duten ahozko eta idatzizko komunikazio guztietan (propaganda, errotulazioa, kartelak, komunikabideak, etab.) euskara erabiltzeko betebeharra beteko da, eta dirulaguntzaren xede diren jardueretan parte hartzen duten edo interesa duten pertsonekin izaten diren ahozko eta idatzizko komuikazio guztietan euskara erabiltzekoa ere bai.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 13 del decreto foral 63/2019, de 28 de mayo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral, se garantizará el derecho de la ciudadanía a usar cualquiera de los dos idiomas oficiales de la CAE en todas las actividades que son objeto de esta subvención, se dará cumplimiento a la obligación de usar el euskera en todas las comunicaciones orales y escritas que conlleven una difusión amplia entre la ciudadanía (propaganda, rotulación, cartelería, medios de comunicación, etc.) y a la obligación de usar el euskera en todas las comunicaciones orales y escritas que se mantengan con las personas participantes o interesadas en las actividades que son objeto de la subvención.

Gainera, entitate onuradunak kontuan izan beharko du genero-ikuspegia proiektua gauzatzerakoan, eta nahitaez bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan honako hauen inguruan ezarritako eginbideak: lan-baldintzen zehaztapena, emakumeen eta gizonen tratamendua eta balorazioa, eta berdintasunaren balioak nola sustatzen dituen bere jardueran. Bete beharko ditu, baita ere, plantilla jakinetako entitate onuradunentzat aurreikusitako eginbideak.

Además, la entidad beneficiara deberá tener en cuenta la perspectiva de género en la ejecución del proyecto quedando obligada al cumplimiento de las obligaciones previstas en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, relativas a la definición de las condiciones laborales, tratamiento y valoración de mujeres y hombres y el fomento de los valores de igualdad en toda su actividad, así como las previstas para las entidades beneficiarias con determinadas plantillas.

Erakunde onuradunak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu beharko du lanpostuen

La entidad beneficiaria deberá promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindika, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatua.

los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen zaindu beharko du eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

También deberá velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

Bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan erakunde onuradunak emandako zerbitzuaren azken onuradunei edo erabiltzaileei buruzko informazioa eman beharko du memoriak, sexuaren arabera bereizita, bai eta erakundearen titularrei eta plantillari buruzkoa ere bai eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundeko plantillari buruzkoa ere, ahal ez den kasuetan izan ezik. Egoera hori behar bezala justifikatu beharko da.

En particular, en materia de igualdad de mujeres y hombres, la entidad beneficiaria deberá proporcionar la información desagregada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado y de las personas titulares de la entidad y de su plantilla, así como de la plantilla de la entidad que se haya contratado, en su caso, para la prestación del servicio objeto de la subvención, salvo en aquellos supuestos en los que no resulte posible, circunstancia que deberá quedar debidamente justificada.

Entitate onuradunak Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotako publizitate aktiboaren betebeharrak ere bete beharko ditu. Arau hori aplikatuko zaio baldin eta aurrekontu-ekitaldi batean gutxienez 100.000 euroko laguntza edo dirulaguntzak jasotzen baditu Bizkaiko Foru Aldunditik, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 foru-laguntza

La entidad beneficiaria también deberá cumplir las obligaciones de publicidad activa contempladas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia que le será de aplicación si durante un ejercicio presupuestario percibe de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos la cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

edo -dirulaguntza publikoak badira, eta, betiere, gutxienez, 5.000 eurokoak badira.

carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen, como mínimo, 5.000 euros.

Hamaikagarrena.- Dirulaguntzaren xedea eta jarraipen-mekanismoak.

Undécima.- Destino de la subvención y mecanismos de seguimiento.

Jasotzen den zenbatekoa hitzarmenaren xederako baino ez da erabiliko, bertan ezarritakoak zehatz betez. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo Zuzendaritza Nagusiaren egiaztapen jardueren, Ogasun eta Finantza Sailari dagozkion finantza kontrol eta auditoretza jardueren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio prozeduren pean jarriko da.

El importe recibido se utilizará para el destino específico objeto de este convenio, con estricta sujeción a los términos establecidos y se someterá a las actuaciones de comprobación por parte de la Dirección General de Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia, en su caso, y a las de control financiero y auditoría que corresponden al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas.

Elkarteak Bizkaiko Foru Aldundiko organoen egiaztapen-jarduerak onartu behar ditu, eta erakunde laguntzaileekin eta dirulaguntzaren xedeari edo haren justifikazioari lotutako hirugarren pertsonekin batera, Foru Administrazioko organoek eta, Erkidegoko araudiaren arabera, finantza-kontroleko eginkizunak esleituta dituzten organoek eskatzen duten laguntza eskaini beharko du eta behar beste dokumentu eman beharko ditu, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluarekin bat etorriz.

La entidad beneficiaria, además de someterse a las actuaciones de comprobación por parte de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia, junto con las entidades colaboradoras y terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación estará obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como por los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero de conformidad con el artículo 41 de la Norma Foral de Subvenciones.

Gainera, bildu diren alderdiek Hitzarmenaren Jarraipenerako Batzorde Kudeatzailea eratzea adostu dute; batzorde hori hitzarmenaren helburuak lortzeko beharko diren lankidetzarako eta koordinaziorako tresna izango da.

Además, las partes comparecientes acuerdan el establecimiento de una Comisión de Seguimiento del Convenio, como instrumento para lograr la adecuada cooperación y coordinación en la consecución de los objetivos del Convenio.

Jarraipen Batzordea arduratuko da dirulaguntzaren interpretazio-, jarraipen- eta kontrol-arazoak konpontzeaz eta erakunde onuradunak bere gain hartutako konpromisoak

La Comisión de Seguimiento se encargará de la resolución de los problemas de interpretación, seguimiento y control de la ejecución de la subvención y del cumplimiento de los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

betetzeaz. Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batek eta Bilbao Exhibition Centre-en ordezkari batek osatuko dute Jarraipen Batzorde hori. Idazkari lanetan, berriz, Turismo Ataleko teknikari bat arituko da. (Gutxienez 3 ordezkari) Aldeetako edozeinek eskatzen duen guztietan.

compromisos asumidos por la entidad beneficiaria. Estará compuesta por un representante de la Diputación Foral de Bizkaia y un representante de Bilbao Exhibition Centre, actuando como secretaria una persona técnica de la Sección de Turismo (mínimo 3 miembros). Se reunirá siempre que lo requiera cualquiera de las partes.

Hamabigarrena.- Jasotako diru-laguntza justifikatzeko epea eta era.

Duodécima. - Plazo y forma de justificación de la subvención percibida.

Onuradunak nahitaez justifikatu beharko du bete egiten dituela dirulaguntza emateko edo baliatzeko betekizunak eta baldintzak, bai eta jarduera egin duela eta haren helburua bete duela ere.

La entidad beneficiaria está obligada a justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinan la concesión o disfrute de esta subvención.

Hitzarmen hau sinatzearen ondorioz jasotako dirulaguntzaren aplikazioaren justifikazioa Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu beharko da, gehienez ere 2025eko martxoaren 31ra arte.

La justificación de la aplicación de la subvención recibida como consecuencia de la firma de este convenio deberá presentarse a través de la oficina virtual del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo como máximo hasta el 31 de marzo de 2025.

Ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 59. artikuluan ezarritako modalitatea erabiliko da. Beraz, onuradunak justifikazio-kontu bat aurkeztu beharko du, Kontabilitate eta Auditoretza Institutuaren mendeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko gisa inskribatutako kontu-auditore baten txostenarekin batera.

La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos será la de la modalidad establecida en el artículo 59 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por lo que la beneficiaria deberá presentar una cuenta justificativa acompañada de un informe de una persona auditora de cuentas inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría.

Kontu-auditoreak berrikusi beharreko justifikazio kontuan ondoko agiri hauek bilduko dira:

La cuenta justificativa objeto de revisión por parte de la persona auditora de cuentas contendrá la siguiente documentación:

1. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen

1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.

concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

Aurreikusitako helburuak noraino lortu diren neurtzeko, memoriak, hala dagokionean, sexuaren arabera banatuta eduki beharko du informazioa, salbu eta posible ez den kasuetan: halako zirkunstantziak behar bezala justifikatuta egon beharko du.

En orden a comprobar la consecución de los objetivos previstos, la memoria deberá, en su caso, proporcionar la información desagregada por sexo, salvo en los supuestos en los que no resulte posible, circunstancia que deberá quedar debidamente justificada.

Horrez gainera, erakunde onuradunak modu justifikatuan adierazi behar izango du ea, bere ustez, diruz lagundutako proiektuaren helburua ondo bete den.

Además, la entidad beneficiaria deberá declarar de manera justificada si, a su juicio, se ha cumplido el objeto del proyecto subvencionado.

2. Memoria ekonomiko bat, hitzarmen honetan ezarritako exekuzio-epean egindako jardueren kostua justifikatzeko. Memoria horrek honako hauek jasoko ditu:

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas durante el plazo de ejecución establecido en el presente convenio, que contendrá:

- Diruz lagundutako proiektuari egotzitako sarrera- gastuen egoera-orria.

- Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto subvencionado objeto del convenio.

- Gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda bat egon behar da, sailkatuta, diruz lagundutako jardueraren gastuak biltzen dituena. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere bai. Dirulaguntzaren eskaera egitean emandako aurrekontuarekiko izandako desbideratzeak ere adieraziko dira

- Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalado en el apartado anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. También se indicarán las desviaciones acaecidas con relación al presupuesto aportado al realizar la solicitud de la subvención.

- Hala badagokio, gastuen egoera-orrian sartutako kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea

- Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados al estado de gastos.

- Sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, jarduera finantzatu duten dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen zerrenda xehakatua, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita

- Una relación detallada, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, en su caso, que hayan financiado la actividad con indicación de su importe y procedencia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

- Dena dela, gastuen zenbatekoa handiagoa bada Sektore Publikoko Kontratuen Legeak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino, entitate onuradunak, hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

- Cuando el importe del gasto supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del Sector Publico, para el contrato menor, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas a diferentes proveedoras, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que la suministren o presten o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de subvención debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Zenbatekoa lainketa bidez esleitzen denean, hitzarmen honen helburu diren jarduketei dagokien gastu osoan ehunekoa zehatzen duen kalkulu sistema eman beharko da.

En los casos en los que se asigne un importe mediante prorrateo, se deberá aportar el sistema de cálculo que permita determinar el porcentaje de gasto total asignado a las actuaciones objeto de este convenio.

3. Ezarritako gainerako betebeharrak – dirulaguntzen zabalkundea, gardentasun-araudia betetzea, hizkuntza koofizialak erabiltzea, genero-berdintasuna, beste gizarte-politika batzuk,- bete izanaren justifikazio memoria betebehar horiek bete direla egiaztatzen duten txosten, adierazpen eta dokumentuak erantsita.

3. Memoria justificativa del cumplimiento del resto de las obligaciones impuestas, - difusión de la subvención, cumplimiento de la normativa de transparencia, uso de las lenguas cooficiales, igualdad de género, otras políticas sociales, - adjuntando los informes, declaraciones y documentos que acrediten su cumplimiento.

Proiektua justifikatzeko unean ikusten bada justifikazioan jasotako gastu-kontzepturen batean onar daitekeen guztizko zenbatekoa aurrekontuan planteatutako zenbatekoa baino txikiagoa dela, beste gastu-kontzeptu batzuetan goranzko desbideratzeen bidez konpentsatu ahal izango da, kontzeptu bakoitzerako aurreikusitako zenbatekoaren gaineko % 20ko gehieneko gehikuntzarekin, betiere agiri bidez behar bezala justifikatuta badago, gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko mugarekin. Justifikatutako zenbateko osoak, klausula honetan ezarritako irizpideen arabera baimendutako aldaketak kontuan hartuta,

Si en el momento de la justificación del proyecto se observa que el importe total admisible en alguno de los conceptos de gasto recogidos en la justificación es inferior al importe planteado en el presupuesto, se podrá compensar mediante desviaciones al alza en otros conceptos de gasto con un incremento máximo del 20% sobre el importe previsto en cada concepto, siempre y cuando esté debidamente justificado documentalmente, con la limitación de no superar la subvención máxima. El importe total justificado, teniendo en cuenta las modificaciones permitidas en base a los criterios establecidos en esta cláusula, deberá permitir la justificación de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

jasotako dirulaguntza izenduna justifikatzeko aukera eman beharko du. Bestela, ez-betetzearen ondoriozko prozedura izapidetuko da.

Gastu bakoitzaren frogagiriak eta egiaztagiriak erakunde onuradunaren esku utzi beharko dira, egin daitezkeen egiaztapen- eta kontrol-jardueretarako, gutxienez hitzarmenaren indarraldi osoan eta, nolanahi ere, ezarri beharreko araudiak dokumentazio horren izaeraren arabera zehazten duen denboran. Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du aplikatu beharreko merkataritza-legeriaren arabera dagozkion kontabilitate- eta erregistro-betebeharrak betetzeko.

Auditoreak egin behar duen txostenaren irismena eta edukia Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduak (foru sektore publikoko dirulaguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartu dituen horrek) 3. eta 7. artikuluetan ezarritakoak izango dira, eta dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren Araudia garatzen duen dirulaguntzen erregelamenduko (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua) 59. artikuluan jasota daude.

Txosten ekonomikoan jasotako gastuen egoera-orria berrikusiko da, 945/2011 Foru Aginduko 3.2.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Zehazki, honakoak berrikusiko dira:

- Erakundeko langileen arloko gastu guztiak.

- Zuzeneko gainerako gastuen kasuan, gastuen zerrenda sailkatutik lagin bat hartu behar da prozedura estatistikoak aplikatuta; konfiantza-maila %95ekoa izan behar da eta errorea ±%5ekoa.

subvención nominativa percibida. En caso contrario se tramitará el correspondiente procedimiento de incumplimiento.

Los justificantes y documentos acreditativos de cada uno de los gastos deberán conservarse en poder de la entidad beneficiaria para las actuaciones de comprobación y control que se puedan realizar, al menos durante toda la vigencia del convenio y, en todo caso, el tiempo que determine la normativa aplicable atendiendo a la naturaleza de dicha documentación. La entidad beneficiaria se compromete al cumplimiento de las obligaciones contables y registrales que le correspondan en función de la legislación mercantil que le sea de aplicación.

El alcance y contenido del informe a emitir por la persona auditora será el establecido en los art 3 y 7 de la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se aprueban las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público foral, previstos en el art. 59 del Reglamento de subvenciones que desarrolla la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones, aprobado mediante Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

La revisión del estado de gastos que forma parte de la memoria económica, conforme se señala en el artículo 3.2.b) de la Orden Foral 945/2011, se realizará:

- Sobre la totalidad de los gastos de personal de la entidad.

- Para el resto de los gastos directos, se seleccionará de la relación clasificada de dichos gastos, una muestra mediante procedimientos estadísticos que cumpla con un nivel de confianza del 95% y un error de más/menos 5%.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Honelakoetan ondoko datuak ere adierazi behar dira: zer sistema erabili den lagina hartzeko, zenbat elementu analizatu diren eta zenbat dauden guztira, eta aztertutako laginean aurkitutako akatsen ehunekoa (elementuen kopurua eta ukitutako gastuen zenbatekoa aintzat hartuta).

En este caso se indicará además el sistema de muestreo empleado, el número de elementos e importe de la muestra analizada respecto del total y porcentaje de deficiencias detectadas respecto de la muestra analizada (también en término de número de elementos y cuantía de los gastos afectados).

Espedientea ixteko berrikuspenean hurrengoak egiaztatuko dira:

- hitzarmen honetan aurreikusitako jarduera guztiak burutu dira,
- erakunde onuradunak ekintza honen gainean aurkeztu dituen justifikazio guztiak, denetara, jasotako laguntza publikoen edota pribatuen bestekoak izan behar dira, bestela kopuru hori gainditu behar dute,
- helburura hitzarmenean ezarritako terminoetan bete da eta bi alderdien gogobetetasuna lortu da.

En la revisión para el cierre del expediente se comprobará que:

- se han ejecutado todas las actuaciones previstas en este convenio,
- la totalidad de las justificaciones aportadas por la entidad beneficiaria relativas a esta actuación son iguales o superiores al conjunto de ayudas públicas y/o privadas percibidas,
- el objeto se ha cumplido en los términos del convenio y a satisfacción de ambas partes.

Arestian aipatutako baldintzetako bat betetzen ez bada laguntza itzultzeko prozedura izapidetzen hasiko da; kasu honetan, ebazpen honetan aurreikusitakoa aplikatuko da.

En caso de no cumplirse alguna de las condiciones antedichas se procederá a la tramitación del correspondiente procedimiento de reintegro, en cuyo caso se aplicará lo previsto en la presente resolución.

Beste alde batetik, erakunde onuradunak aurkeztutako memoriak eta txostenak interpretatzeko behar duen laguntza eman beharko dio Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailari.

Por otra parte, la entidad beneficiaria deberá prestar al Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo la asistencia que precise para la interpretación de las memorias e informes presentados.

Jarduera erakunde onuraduna ez den beste erakunde baten esku uzten bada, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu duen emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, lege horretan aurreikusitako printzipio orokorrak errespetatu beharko ditu: bere lana osatzen duten estatistikak genero-ikuspegiaren arabera egokitzea, hizkera ez-sexista erabiltzea eta eratzen diren batzordeetan eta lantaldeetan

En los supuestos en que la ejecución de la actividad se encomiende a una entidad distinta de la entidad beneficiaria, de conformidad con lo previsto en el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo, deberá respetar los principios generales previstos en la misma; adecuar las estadísticas que formen parte de su trabajo a una perspectiva de género, realizar un uso no sexista del lenguaje

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzea.

y garantizar una representación equilibrada entre mujeres y hombres en la comisión y equipos de trabajo que se constituyan.

Hamahirugarrena.- Emandako dirulaguntza hedatzea.

Erakunde onuradunak jaso duen dirulaguntza publikoa dela erakusteko publizitate egokia egin behar du. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudia eta finantzaketa publikoari buruzko testua sartuko ditu karteletan, oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, komunikabideetan egindako aipamenetan, eta diruz lagundutako xederako egokiak diren eta aurrekoen antzeko eraginkortasuna izan dezaketen guztietan.

Decimotercera.- Difusión de la subvención concedida.

La entidad beneficiaria deberá adoptar las medidas correspondientes para publicitar de forma adecuada el carácter público de la subvención recibida mediante inclusión de la imagen institucional de la Diputación Foral de Bizkaia, leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación y otras que resulten adecuadas al objeto subvencionado y de eficacia equivalente a las mencionadas.

Hamalaugarrena.-Azpikontratazioa.

Erakunde onuradunak, diruz lagundutako jardueraren exekuzioa azpikontrata dezake. Azpikontratatutako jarduera % 90eraino irits daiteke, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluaren arabera. Nolanahi ere, onuradunak diruz lagundutako proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak antolatu eta zuzenduko ditu.

Hirugarren pertsona batzuekin hitzartutako jardueraren kostuak dirulaguntzaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 euro baino gehiago bada, orduan, kontratua idatziz formalizatuko da eta baimena eskatu beharko zaio Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren foru diputatuari, 5/2005

Decimocuarta.-Subcontratación.

La entidad beneficiaria podrá subcontratar la ejecución de la actividad subvencionada. La actividad que la entidad beneficiaria subcontrate podrá llegar hasta el 90% conforme al artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. En todo caso, la entidad beneficiaria mantendrá la organización y dirección de los medios personales y materiales necesarios para la realización del proyecto subvencionado.

Cuando la actividad concertada con terceras personas exceda del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, la subcontratación se celebrará por escrito y deberá contar con la previa autorización de la diputada foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo de acuerdo con lo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Foru Arauaren 27.3 artikuluari dagokionez.. Beronek 15 egun baliodunekο epearen barruan ebazpena eman beharko duelarik. Beren beregiko ebazpena ematen ez badu, administrazioaren isiltasuna baiezkotzat joko da eta emandakotzat joko litzateke.

establecido en el artículo 27.3 de la Norma Foral 5/2005, quien resolverá en un plazo de 15 días hábiles. En el caso de no mediar resolución expresa, la autorización se considerará concedida mediante silencio administrativo positivo.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen arloan kontratu txikietarako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoak baino, onuradunak hiru enpresa hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi hori behar bezala azaldu behar da justifikazioan.

Cuando el importe del gasto subvencionable, supere las cuantías establecidas para el contrato menor en la normativa vigente en materia de contratos del sector público, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención, circunstancia que deberá quedar explicada debidamente en la justificación.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira txosten batean.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutza-interesak eskatuko dira, eta, baldin eta onuradunari administrazioan edo zigor arloan sexu diskriminazioarekin jokatzeagatik zehapena ezartzen bazaio, sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro cuando la persona beneficiaria sea sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

Behar baino gehiagoko finantzazioa denean beste laguntza batzuk ere ematen direla-eta (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 18.3. artikuluan ezarrita), bidezkoa izango da behar baino gehiago ordaindutakoa itzultzea, eta berandutze-interesa aplikatuko da.

En el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-36O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Baldintzen zati bat betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak, betiere erakunde onuradunak konpromisoak argi eta garbi betetzeko jarduketa egiaztatzen bada, dirulaguntzaren zati bat itzuli beharko da, guztizko ekintzatik buruturikoaren proportzioa aplikatuz.

El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la entidad beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al reintegro parcial de la subvención aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

Hamabostgarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Decimoquinta.- Régimen de modificación del convenio.

Erakunde onuradunak emakida-ebazpenaren aldaketak eskatu ahal izango dizkio Bizkaiko Foru Aldundiari, baldin eta aldaketa horiek justifikatzeko epea luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jardueran sartzen diren ekintzak aldatzea badakarte. Aldaketa horiek baimendu ahal izango dira ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira.

La entidad beneficiaria podrá solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación del plazo de justificación, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se perjudiquen derechos de terceras personas.

Eskaera hori diruz lagundutako jarduera egiteko bi hilabete epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko beharrezko izapideak egin daitezen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldaketarako eskaerari buruzko ebazpen berariaz eman ezean, aldaketa ukatu egin dela ulertuko da.

Dicha solicitud debe realizarse al menos dos meses antes de que finalice el plazo para realizar la actividad subvencionada, al objeto de realizar la tramitación necesaria para modificar la resolución de concesión, según el art. 32 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En caso de no producirse resolución expresa referente a dicha solicitud de modificación, se entenderá que dicha modificación no ha sido concedida.

Dirulaguntza ematen duen organoak laguntza hori emateko ebazpena aldatu ahal izango du ofizioz, funtsak aplikatu aurretik, kasu honetan: laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu badira eta, aldaketa horren ondorioz, xede den interes publikoa lortzea eragozten edo

El órgano concedente de la subvención podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impida o dificulte la consecución del

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

arriskuan jartzen bada, eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko Foru Arautegiaren 71. artikuluak ezarritakoari jarraiki, dirulaguntzaren entitate onuradunak adieraziz gero justifikazioan dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, funtsean dirulaguntzaren izaera edo helburuak aldatzen ez dituztenak, ebazpenaren aldaketa eragin ahal izan dituzten aldaketak gertatu direla, onesteko aurretiko administrazio-baimenaren tramitea egin gabe, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahalko du, baldin eta hori onartzeak hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie, horrek guztiak onuraduna 5/2005 Foru Arauak ezarritakoaren arabera egotz dakizkiokeen zehazpenetatik salbuetsi gabe.

Hamaseigarrena.-Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta bertan xedaturikoaz gain, hauexek dira aplikagarriak: Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta dirulaguntzen 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegia onetsi duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua zein aldatu baitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru dekretuaren bidez, zeinen bitartez onartzen baita klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida eta gainerako arauzko xedapenak.

Aurreko arauetan aurreikusi ez den guztirako, hauexek aplikatu beharko dira: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoena, 169/2014 Aurrekontuei buruzko Araudi orokorra, eta zuzenean edo analogiaz

interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

Así mismo, de conformidad con el artículo 71 del Reglamento Foral de Subvenciones cuando la entidad beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma, que no alteren la naturaleza ni objetivos de la subvención, que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005.

Decimosexta. - Régimen jurídico.

Este convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, además de por lo dispuesto en el mismo, por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, modificado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero por el que se aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas y demás disposiciones reglamentarias.

Para todo lo no previsto en las anteriores normas, será de aplicación la Ley 40/2015, de régimen jurídico del Sector Público, el texto refundido del Reglamento Foral Presupuestario 169/2014, así como cualquier otra norma de derecho

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

aplikatu beharreko administrazio edo substantibo zuzenbideko beste edozein arau.

administrativo o sustantivo que directa o por analogía pueda resultar de aplicación.

Hitzarmen honen interpretazioa, ondoreak, ebazpena eta behar bezalako betetzea direla eta sor daitezkeen eztabaida guztiak Bizkaiko Foru Aldundiak ebatziko ditu administrazio bidean hark emandako ebazpenak berehala betearaztekoak izango direlarik.

Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia resolver en vía administrativa cuantas controversias se susciten en relación con la interpretación, efectos, resolución y cumplimiento del presente convenio, cuyas resoluciones serán inmediatamente ejecutivas.

Hitzarmen honen ondoriozko auziak, horien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo, conforme lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Hamazazpigarrena.-Arau-hausteak eta zehapenak.

Decimoséptima. - Infracciones y sanciones.

Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, dirulaguntzei buruzko Foru Arauko IV. tituluan xedaturikoa aplikatuko da.

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo dispuesto en el título IV de la Norma Foral de Subvenciones.

Hamazortzigarrena.- Datu pertsonalen babesa.

Decimoctava. - Protección de datos de carácter personal.

Datu pertsonalen babesaren arloan hitzarmen honi aplikatu behar zaizkion arauak hauek dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.

La normativa aplicable al presente convenio en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación:

Hemeretzigarrena.- Hitzarmenak azkentzea.

Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduketak betetzean gertatzean.

Erakunde onuradunak hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak betetzen ez baditu, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena suntsiarazteko ahalmena izango du.

Hitzarmena iraungitzeak ez dakar berarekin erakunde onuradunari hitzarmenetik eratorritako betebeharrak iraungitzea.

Eta horrela jaso dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute.

Decimonovena. - Extinción del convenio.

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto.

El incumplimiento de las obligaciones derivadas del convenio por parte de la entidad beneficiaria facultará a la Diputación Foral de Bizkaia para su resolución.

La extinción del convenio no implica la de las obligaciones de la entidad beneficiaria derivadas del mismo.

Y para que conste y surta los efectos oportunos donde proceda, las partes firman el presente convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: GH7S-PW4Q-RQDE-366O
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: